

## Auzolanean zaborrik ez eta konpost hobea

Hondakinen tratamendua beti da gatazkatsua gizarte aberatsetan, Euskal Herrian ere errauste planta, zaborteği eta bestelakoekin ikusten denez. Agintariak eta planak egitetik bizi diren kontsultoreak soluzio konplikatu eta garestiak aipatzen dituzte beti. Aldiz, erraz eta merkerik ere bada.

**EZETZ ESAN ZUTEN 2002AN.** Ezetz, herrian ez zutela onartuko 60 hektareako zabortegirik egitea. 2.700 biztanle dauzka Frantziako Vendée departamenduan Saint-Philbert-de-Bouaine herriak, Ar-Naoned (Nantes) inguruan. Baina biztanle horien artean eduki behar du fundamendu handiko jenderik, zeren eta sei urtetan etxeko zaborrak modu autogestionatuan kudeatzeko eredu bihurtu baita.

*Le Monde Diplomatique* hilabetekariak berriki plazaratu du ingurumenari eskainitako zenbaki berezia, *L'Atlas de l'environnement*. Bere 100 orrialdeak bi atal nagusitan dauzka banatuta: batetik "Planetak dituen mehatxuak" eta bestetik "Planeta salbatu dezaketena". Artikuluon artean dago honakoa: "Hondakinak: Saint-Philbertek erakusten du bidea". Gezurra badirudi ere, biderik motz eta merkeena.

Eskualde mailako zaborteğiari uko egin eta bi urtera, 2002an, konpost eremua jarri zuten martxan Saint-Philberten. 2.500 metro karratuko terrena egokitu zuten herritarren sukaldeetako hondakinak konpostatzeko, eta horrekin batera ahalik eta jende gehienak parte hartzeko kanpainari ekin zioten. Bultzagileek herritar guztiak hitz egin zuten: familia, ostatu, komertzio... Lau urte geroago, herritarren %80k hartzen du parte konpostaketan. Zinegotzi batek, Jean-Pierre Morisseau-k, esan duenez, "gainerako

%20ak dira herrian tarteka azaltzen direnak edo oraindik geratzen diren pizzajale bakanak".

Baina Saint-Philberteko esperientziari interesa, etxeko hondakinei aprobetxamendu hain handia ateratzeari barre egin gabe, noski, kudeatzeko ereduak ematen dio. Hemen auzolanean egiten baita konpostaketaren prozesu osoa. Udalaren dirulaguntzarekin, eskualde mailako laguntzekin, baina autogestioan oinarrituta.

Bertako *L'Ouest-France* egunkariak, honela dio kronika batean: "Hemen herritarren %80k patata azalak ez ditu zakarrontzira botatzen. %30ek nork bere etxeko baratzean edo jardinean ipinitako konpostagailu partikularretan erabiltzen ditu. Eta gainerako %50ek poltsa txikietan eramaten ditu konpostatzeko gunera. Hura ikusi beharra dago sinesteko. Etengabe joan-etorrian jendea, gizon eta emakume, edozein adineko, eskuetan aza, azenario edo porru hondakinez betetako zakuak dakartzatela".

Konpostgunea asteko hiru eguntan dago zabalik, ordu jakinetan. Ordu horietan "konpost-maisua" (*maitre composteur*, frantsesez) dago harreran, jendearen hondakinak hartu, pilan ipini, galderei erantzun, eta abar egiteko. Konpost-maisuaren ardura da sukaldeetako hondakinak eta herritarrek bezala udalak baratze eta jardinetatik ekartzen dituzten sastraka eta adar jen-

Lerroon ondoko lau argazkiak Compost Citoyen elkarteak dauzka bere webgunean. Elkarte honek inguruko herrietara zabaldu nahi du 2002an Saint-Philberten hasitako lan sistema: etxeetako hondakinak herrian bertan biztanleek auzolanean kudeatzea. Herritar boluntarioak dira sistema honetan protagonistak, nahiz eta lan zehatz batzuetarako profesional baten laguntza baduten, eta aldi berean udalarekin lotuta dago. Udalak pagatzen ditu sortzen diren gastuak, eta orain artean beste bilketa eta birziklatze sistema mekaniko eta sofistikuagoak baino merkeago ateratzen zaio komunitateari, besteren artean garraiotan asko aurrezten delako. Sukaldeko hondakinak auzolaneke konpostgunera eramaten dituzten herritarrek hor sortutako ongaria jasotzen dute trukean. Eta etxean konposta egiten dutenei, prozesua hobetzen laguntzen die elkarteak.

dea txikitu eta nahasketa egitea, prozesuaren kudeaketa osoa zaintzea.

Hilabete batzuen buruan herritarrek, beren ahaleginaren ordainetan, konpost primerakoa jasoko dute baratze, jardin edo balkoietan erabili ahal izateko. Lehen bakoitzak ekarri duen hondakin kopuruaren proportzioan. 2006an 2.700 herritarren eta udalaren lorategien artean 70 tona konpost banatu ziren.

### Politikoen zain egon gabe

Inguruko askok, Vendée departamenduko agintariak barne, espero omen zuten hasierako beroaldiaren ondoren laster itzaliko zirela Saint-Philberteko esperimenduaren garrak. Baina alderantziz gertatu da, eta gainera laster etxeko tresnen birziklaketarako beste gune bat irekitzekotan dira. Areago, Compost Citoyen izeneko elkarteak sortu dute, etxeko hondakinak herritarren artean kudeatzeko ideia beste herrietan ere sustatzeko.

Honela esplikatu du espiritua Jean-Pierre Morisseau zinegotziak: "Politikariak soluzio tekniko eta automatizatuak baizik ez dituzte ikusten, bereizketa mekano-biologikoa eta beste. Baina hain zuzen alderantzizkoa egin behar da: gizakietan inbertitu, erabiltzailea bihurtu protagonista". Hala egin dute hasieratik Saint-Philberten. Herria 44 etxe multzo txikitik banatu eta horietako bakoitzean ani-



matzaile boluntario bat aurkitu, informazioa bideratuko duena, arazoak azkar jakinarazi, hobekuntzak proposatu, hilabetean behin konpostgunean permanentzia egin eta konpost-maisuari lagundu, eta abar. Boluntario talde hau da Saint-Philberteko esperientziaren bihotza.

Herritarrei esfortzu bat eskatzen zaie, eta aldi berean tresna egokiak jartzten, prozesua gogaikarriega gerta ez dakien. Parte hartu duen familia bakoitzari ematen zaizkio bi ontzi: bata, 10 litroko edukiera duena, harraska azpian edukitzeko; bigarrena, 35 litrokoa, hermetikoki ixten den estalkiarekin, balkoian edo atarian egun batzuetan edukitzeko modukoa. Hau da herritarrak astean behin edo bitan konpostgunera eramango duena.

Familia bakoitza kartila baten jabe da, eta hondakinak eramandako aldioro seilua ipintzen diote konpostgunean, konposta banatzeko egunean zenbat dagokion kontrolatzeko.

Hondakinak ondo erabiltzen erakusten duten inprimakiak eta bestelako materialak ere banatu ditu elkarrekin herritarren artean. Zeren eta auzolaneko konposta egiteaz gain nork bere etxean egiten dutena hobetza ere lortu nahi baita. Esperientziak erakutsi du borondate oneko herritar askok ez dutela asmatzen beren baratzean ongarrri ona lortzen, aholku teknikorik ezagatik. Hondakin heze eta lehorrak neurrian ez nahasteagatik, adibidez.

Konpostguneak balio du ikasketa horretarako. Hemen etxeko hondaki-

nak biltzen dira batetik eta bestetik baratze eta jardinetakoak, tartean *villa* eta etxe bakarretako hesiak mozteak sortutakoak. Hauek txikiketa berezia behar dute konpostatzeko, eta behar den makinaria konpostgunean daukate herritarrek.

2006an Compost Citoyen elkarteak sortu dute Saint-Philberten. Bere estatutuen bigarren atalak honela definitzen ditu kideak: "Elkarrekin biltzen ditu Vendée eskualdeko herritarrek beren hondakinak arduratsu kudeatzen dituztenak, alegia: sailkatuz, birziklatuz eta hurbileko konpostaketa eginez". Hiru helburu ipini dizkiote elkarteari. Ekologia mailan, sailkatzea, konpostatzea eta konpostaren erabilera sustatzea. Ekonomian, herritarrek banaka bezala taldean dituzten interes materialak eta moralak defendatzea. Maila sozialean, kudeaketa partehartzaile eta lekukoa bultzatzea, lanpostuak eta elkarbizitza sortzen dituelako.

Compost Citoyen taldea zaborren gaineko zergen eztabaida pizten ere ahalegintzen da. Garrantzizkoa delakoan herritar edo enpresa bakoitzak sortzen duen zaborraren arabera pagatzea, eta urrunago joanez, ordainketa sistemak saritu behar duelako birziklatzen eta konpostatzen ahalegintzen dena.

Ez da inon aipatzen Saint-Philberteko lider ongarrizaleen izenik, baina ezagutzekoak izango dira. Horiek ez dira politikarien zain egon zaborrei alternatiba aurkitzeko. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



**Beti hurbilago.**

Zerbitzu integrala,  
pertsonalizazioa,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe da gure konpromisoa.

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Herrani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL.: 943 420 624